

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

2605

EBAZPENA, 2021eko martxoaren 15ekoa, Lehendakartzako idazkari nagusiarena, Lehendakartzako behin-behineko langile bat izendatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28. artikuluan ezarritako ahalmenez baliatuta, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eman duen txostenarekin bat etorriz, eta horretarako aurrekontu-kreditua dagoenez gero, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Asier Aranbarri Urzelai jauna Trantsizio Sozialeko Proiektuak Koordinatzeko aholkulari izendatzea (kodea: 5313; dotazioa: 1; maila: zuzendaria), Lehendakaritzan.

Bigarrena.– Egin beharreko lanak aholkularitza-lanpostuari dagozkionak izango dira, baita atxikita dagoen eremuko espezifikoak ere.

Hirugarrena.– Interesdunak eskubidea izango du, baldin eta horretarako legez eskatzen diren baldintzak betetzen baditu, Goi Kargudunen Lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 3.1 edo 5.1 edo 5.2 artikuluetan jasota dauden aurreikuspenen bat edo guztiak aplika dakizkion.

Laugarrena.– Izendapen honek 2021eko martxoaren 13an izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Era berean, ebazpen honen bidez ezartzen den zerbitzu-harremana automatikoki amaituta geratuko da izendapena egiten duen organoaren titularrak kargua uzten duenean, lehenago edozein unetan harremana baliogabetzeko aukerari uko egin gabe.

Bosgarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 15a.

Lehendakartzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.